

BIZIKLETAK ALOKATZEKO SISTEMA AUTOMATIKOA

IZENA EMATEKO ESKABIDEA ADINGABEENTZAT

Erabiltzaile zk. (CEMUSAk bete beharrekoa):

(Eskatzaileak bete beharrekoa)

Izen-abizenak:

NAN / IFZ:

Jaioteguna:

Helbidea (osorik):

Telefonoa(k):

Helbide elektronikoa:

Bankuaren kontu-zk.:

ESKAERA: izena ematea, erabiltzaile gisara, Iruñeko Udalak herritarren zerbitzura jarri duen bizikletak alokatzeko zerbitzuan.

ADIERAZPENA: eskabide honetan emandako datuak egiazkoak dira, eta eskabide honi atxikirik doazkion erabilera-baldintzak irakurri eta onartzen ditu.

Iruñean, (e)ko aren (e)an

Legezko ordezkariaren sinadura:

.....
Adingabearen izen-abizenak:

NAN / IFZ:

Jaioteguna:

Adierazpena: Aurreko datuen jabeak irakurri ditu zerbitzua erabiltzeko baldintza orokorrak, eskabide honi atxikita daudenak.

Sinadura

Iruñeko Udalaren Bizikletak alokatzeko sistema automatikoaren erabiltzaileendako informazio-klausula

DATUEN BABESA: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu zuk emandako datu pertsonalak Iruñeko Udalaren "Udal Jarduerak eta Zentroak" izeneko fitxategian bilduko direla, bizikletak alokatzeko biziZ sistema publikoa kudeatze aldera. Baduzu aukera datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubideak gauzatzeko, Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia, 2 - 31001 Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es) joaz.

BIZIKLETAK ALOKATZEKO SISTEMA AUTOMATIKOA

ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1. Zerbitzuaren erabilera

a. Iruñeko Udalak herritarren eskura jarri duen bizikletak alokatze sistema automatikoa adinez nagusi diren pertsonen eta 12 urtetik gorako adingabeek erabil dezakete. Adingabeen kasuan, adingabeek eta haien legezko ordezkariak sinatuko dute agiri hau, eta legezko ordezkaria izanen da erantzulea zerbitzu honetaz bezainbatean adingabeen balizko ekintza bidegabeetan.

b. Izena emateko eskaera idatziz egin daiteke, eginkizun hori duten bulegoetan bertan, edo Interneten bidez (ikus 6. puntua: operadorearekin harremanetan jartzeko datuak).

c. Ordaintzeko era: izena ematea doan da.

d. Zerbitzuan baja hartzeko:

i. Zerbitzuan baja hartu nahi duten erabiltzaileek idazki sinatua aurkeztu beharko dute horren berri emanez.

ii. Operadoreak beretzat gordetzen du kontratu-baldintzak betetzen ez dituzten erabiltzaileak aurretik abisatu gabe bajaran emateko.

2. Zerbitzua noiz den erabilgarri:

a. Irekitzeko ordutegia, bestelakorik jakinarazi arte, honako hau izanen da:

i. Udan (apiriletik urrira):
Asteleheneetik igandera, 07:30etik 20:00etara

ii. Neguan (azarotik martxora):
Asteleheneetik igandera, 08:00etatik 18:00etara

Ez da zerbitzurik egonen urtarillaren 1 eta 6an, sanferminetan eta abenduaren 25ean.

b. Gehienez ere 4 orduz jarraian erabil daitezke bizikletak. Epe hori gaindituz gero –sistemaren informatika-zerbitzariak emandako datuen bidez egiaztatuko da hori–, kasu bakoitzari dagozkion zehapenak aplikatuko zaizkio.

3. Tarifak

a. Zerbitzua doan da.

4. Erabiltzaileen betebeharrak

a. Erabiltzaile-txartela norberarena eta besterenezina da.

b. Bizikleta ezin zaie hirugarrenei lagatu, ezta erabiltzaileak ez diren bidaiariak garraiatzeko erabili ere.

c. Mailegu-tokitatik bizikleta eskuratu baino lehen, erabiltzaileek egiaztatu beharko dute hautatu duten bizikleta erabiltzeko moduan dagoela.

d. Bizikletak Iruñeko hirigunean bakarrik erabil daitezke.

e. Erabiltzaileek bere gain hartzen dute bizikletaren zaintza, aparkalekuko euskarritik hartzen dutenetik itzultzen duten arte. Hortaz, bizikleta behar den bezala erabili beharko dute, eta beharrezko neurriak hartu bizikletaren lapurreta, galera edo narriadura ekiditeko, bai eta aparkalekuko euskarrian behar bezala loturik gelditzen den egiaztatu ere.

f. Erabiltzaileen ardura izanen da edozein unetan agintari edo erakundeek –estatuko, erkidegoko edo tokikoek– bizikleta gidatzeari buruz xedatutako eginbeharrak betetzea, betiere barne harturik gidatzeko osagarriak –kaskoa, txaleko islatzaileak, etab.– erabiltzeko betebeharratik etor daitezkeenak ere. Debeku da, nolahi ere, bizikleta zirkulazio-arauetan aurreikusitakoaren kontra erabiltzea.

g. Debeku da bizikletaren parte bat edo osorik manipulatu edota desmontatzea.

h. Debeku da bizikleta lurzoru edo baldintza desegokietan erabiltzea, konparazio batera, eskaileretan, soroetan, patina-je-arrapaletan eta abarretan.

i. Erabiltzaileak dira erantzule bakarrak hala beren buruari edo hirugarrenei eragindako lesioetan nola beren ondasunei edo hirugarrenen ondasunei egindako kalteetan, eta hori hala izanen da bai horiek bizikletaren erabilera arruntak eragindakoak direnean bai erabilera desegokiak eragiten dituztenean.

j. Bizikleta galdu edo lapurtua izanez gero, erabiltzaileek horren berri eman beharko dute, betiere gehienez bi ordu igaro baino lehen, horretarako jarri den harremanetarako telefonoan. Halaber, Poliziaren aurrean salatu izanaren ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute. Istripu edo gorabeheraren bat gertatuz gero, eta horren ondorioz bizikletaren sistema mekanikoa larri kalteturik suertatzen bada, horren berri eman beharko da, eta bizikleta geltokirik hurbilenean utzi.

5. Zehapenak, baldintzak ez betetzeagatik

a. Bizikleta lapurtu, galdu edo hori desegoki erabiltzeagatik narriatuz gero, CEMUSAK 150,00 euroko zehapena kobratuko die erabiltzaileei.

b. Lapurretaren kontrako sistema edo giltza galduz gero, beste horrenbesteko zehapena jarriko zaie.

c. Bizikleta berandu itzuliz gero:

i. Bizikleta zerbitzua itxita dagoenean itzultzen badute, aurrekoaz gain txartela 24 orduz baliogabetuko zaie.

ii. Bizikleta hartzen den unetik itzuli arte ez badira 24 ordu igaro, zerbitzua 10 egun naturalez erabiltzeko gaitasuna kenduko zaie erabiltzaileei.

iii. Bizikleta 24 ordu baino gehiagoko atzerapenez itzuliz gero, zerbitzua 30 egun naturalez erabiltzeko gaitasuna kenduko zaie erabiltzaileei, eta fidantza kobratuko da, prebentzio gisara. Bizikleta itzuli dela eta egoera onean dagoela baieztatutakoan, fidantza itzuliko zaie erabiltzaileei.

iv. Erabiltzaile batek arauak behin baino gehiagotan urratuz gero, behin betiko kenduko zaio zerbitzuaz baliatzeko gaitasuna.

6. Zerbitzuko operadorearekin harremanetan jartzeko datuak

a. Izena: CEMUSA

b. Helbidea: Berriainz industrialdea G k., 175. nabea. BERRIOZAR (NAFARROA)

c. Telefonoa: 948 35 16 84.

d. Webgunea: <http://www.c-cycles.com>